




ESKOLAKO AGENDA 21

Arrasaten:

Baserri Kultura proiektua

2018/19 ikasturtean







Arizmendi Ikastola: Gaztelupe, Gazteluondo, Arimazubi eta Santa Teresa
guneak

Arrasateko Institutua.

Arrasateko Herri Eskola

Legazpiko Inguru gela (Eusko Jaurlaritza) eta

Udalako Ingurumen Eskola (Arrasateko Udala)



IKASLEEN KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK (osoko bilkuran aurkezteko)

Arrasaten, 2019ko maiatzaren 7an



Gazteluondo: Peru Arrese

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok ikasleak gara Arrasateko Herri Eskolan, Institutuan eta Arizmendi Ikastolan (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetan). Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

Arrasate Herri Eskola: Irati Narvaez

Duela 16 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasangarria, bioaniztasuna bi urtean, mugikortasuna, bizitzeko herria, klima aldaketa, iaz ura eta aurten baserri kultura izan dugu gaia.

Kurtso honetan asko izan dira **egindako lanak eta aktibitateak**, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa, hemen zerrendatzen ditugu batzuk:

Arimazubi: Eider Garcia

- Ingurumen Eskolakoekin Arrasateko baserrien bilduma osatu dugu eta herriko baserri batzuk bisitatu ditugu, bertako biztanle batzuekin hitz egin dugu eta baserriko bizitzari buruz gauza interesgarriak eta bitxiak atera ditugu.
- Jasotako informazioarekin liburuxka bat prestatu dugu eta gure ikerketa lana eskolan geratu da nahi duenak ikusteko.
- Gure ikastetxeetan galdetegi batzuk erabili ditugu ikasleen artean baserriko tresneriari buruz zer-nolako ezagutza dagoen ikusteko.
- Arrasate zelan aldatu den behatu dugu, erabiliz gaur egungo argazkiak eta argazki zaharrak.
- Herri gunean dauden baserri batzuk behatu ditugu; Gomestio, Gorostiza, Uribe,... eta konturatu gara zelako egoeran dauden kaleko baserri gehienak.

Institutua: Julen Sagasta

- Arrasaten desagertuta dauden baserri batzuk ezagutu ditugu argazki zaharrak erabiliz, eta ikusi dugu lehen baserriak zeuden leku batzuetan gaur egun zer dagoen, adibidez Uribarri auzoan, Musakolan,...
- Azokara joan gara eta bertako baserriarrei galderak egin dizkiegu azokaren egoerari eta etorkizunari buruz, zer-nolako produktuak dituzten, zelakoak diren salmentak, ...
- Azokan herritarrei ere galderak egin dizkiegu: zergatik joaten diren azokara, zelan ikusten duten azokaren egoera, ...
- Azokan landareak erosi ditugu, gero ortuan landatzeko.
- Ereindajan denda bisitatu dugu. Denda horretan, 0 kilometro filosofian oinarritutakoa, lehentasuna da bailarako baserriarren produktuak saltzea.
- Santamas eguna ospatu dugu, baserriko animalia batzuk ezagutu ditugu, eta jabetu gara haien garrantziaz.
- Santa Ageda eguna eta euskararen eguna ere ospatu ditugu.

Gaztelupe: Ander Barañano

- Gure eskoletan bideo batzuk ikusi ditugu baserriari buruz, aztertu dugu baserriak zelan joan diren eboluzionatzen, lehengo baserriak zelakoak ziren eta gaurkoak zelakoak diren.
- Ikasi dugu zer tradizio dagoen baserriaren inguruan: karapaixoarena, bertsolaritza, euskal kirolak, ...
- Bertsolaritza landu dugu, bertsoak zelan sortu, eta gure saiakerak egin ditugu.
- Ogia eta taloak egin ditugu.

Santa Teresa: Aitzol Rodriguez

- Gure ikastetxeetan txoko berdeak ipini ditugu, eta bertan ikusgai jarri ditugu material batzuk, baserri kultura gaiarekin lotutakoak: argazkiak, horma irudiak, ...
- Udalako karobiak eta elurzuloa bisitatu ditugu, antzinako baserrietan egiten ziren lanbideak ezagutzeko; elurzuloaren kasuan ikasi dugu garai baten oso garrantzitsua zela elurra biltzeko lana.

- Udalatik ibilaldi batzuk egin ditugu bertako baserriak ezagutzeko, eta baita haien inguruan dauden ortuak, zelaiak, soroak eta abar.

Gazteluondo: Amaur Gallastegi

- Ikasi dugu antzina erlea oso garrantzitsua zela eta gaur egun zer egoeratan dagoen; jakin dugu ere animalia horren lana bizitzarako ezinbestekoa dela, eta horma irudiak egin ditugu horren guztiaren inguruan.
- Egur landaketak ikusi ditugu, pinudiak batez ere, eta konturatu gara gure herrian landaketa asko dagoela. Jakin dugu ere “banda marroia” gaixotasunaren berri, pinudietan hedatzen ari dena. Gai horiekin loturiko arazoak aztertu ditugu eta muralak egin, eskolan jartzeko.
- Garagartzako ortuetara joan gara eta ortuko lanak egin ditugu. 87 ortu daude, eta haiei esker herritarrek aukera daukate barazki freskoak sortzeko. Gainera, ortuko lanetan, ekoizpen ekologikoaren irizpideak jarraitu behar dituzte.

Arrasate Herri Eskola: Izadi Elortondo

- Nekazaritza ekologikoa ezagutu dugu, eta baserrian ekoiztutako kalitateko elikagaiak aztertzerakoan, hauek deskubritu ditugu: *Basatxerri* txerriak, *Lumagorri* oilaskoak, Eusko Labeldun okela, Eusko Labeldun eztia eta barazki eta fruta ekologikoak, besteak beste.
- Ikasi dugu konposta zelan egiten den Ingurumen Eskolan dagoen konpostagailuan, eta handik ateratako konposta ortuetan erabili dugu lurra ongarrizteko.

Baserri Kulturaren gaia aztertu dugunean, konturatu gara asko galtzen ari garela eta arazo batzuk agertzen direla (asko gure bizimoduarekin lotuta), eta denok egin genezakeela zerbait, hori guztia bide onetik eramateko.

Santa Teresa: Aratz Etxebarriarteun

Ikasle guztiok parte hartu dugu ondorioak egiten, proposamenak egiten eta konpromisoak hartzen. Hona hemen: adostu ditugu lehendabizi ikastetxe bakoitzean, eta gero ikastetxeetako ordezkariak egindako batzarretan.

Hemen aurrean gauden ikasleok gara lehen aipatu ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak. Orain entzungo dituzuen proposamenekin eta konpromisoekin bizi kalitatea hobetu nahi dugu Arrasaten, hau da, lagundu nahi dugu Arrasate hobe lortzen.

Institutua: Ane Uribarren

Ikasturte honetan “Baserri Kultura”ren gaia landu dugu, eta jabetu gara baserri kulturak eta tradizioak garrantzi handia izan dutela historian zehar. Euskaldunon etxe horiek 500 bat urte inguru dituzte, eta aditu askok esan duten bezala, aurretik zeuden etxetxoak lastoz egindako etxolak edo txabolak baino ez ziren. Beraz, baserriak dira gaur egun etxebizitza moduan ulertzen ditugun lehenengo eraikinak.

Arrasaten azken mendean 80 bat baserri desagertu dira, eta horrekin batera gure kulturaren zati handi bat ere galdu dugu. Gaur egun, gure herrian 200 bat baserri ditugu oraindik. Batzuk oso egoera onean daude eta jendea bertan bizi da. Beste batzuk, aldiz, hutsik daude edo desagertzeko arriskuan. Baserri munduak bizirik irauteko, gizartea inplikatu behar da.

Gaztelupe: Aritz Heriz

Baserriak desagertzen badira paisaia aldatuko litzateke guztiz, eta zelaiak, ortuak eta soroak bezalako elementuak desagertuko lirateke. Gainera, aukera galduko litzateke herrian bertan elikagaiak ekoizteko, eta horren ondorioz, behartuta egongo ginateke urrutiko produktuak erostera.

Kontuan hartu behar dugu bertan ekoiztutako produktuak erosteak onura asko dakarrela: inguruko baserriarrei lana ematen diegu (bitartekaririk ez), elikagai freskoak eta sasoikoak kontsumitzen ditugu, elikagaien garraioan CO₂ gutxiago isurtzen da atmosferara, eta abar.

Arimazubi: Paule Carrascal

Gure lehenengo **proposamenak** dira:

- Baserri eremuak eta nekazaritzarako lur emankorrak babestea eta bertan ez eraikitzea, ez etxebizitzarik, ez industriadik,
- Udalak ahal duen neurrian nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatzea eta laguntzea.
- Ibilbide gidatuak antolatzea herritarrek baserri mundura hurbiltzeko.

Herri Eskola: Txaber Urgoitia

Ikusi dugu gure erosketa gehienak supermerkatu handietan egiten ditugula eta denda txikiak ixtren ari direla. Konturatu gara, erosten badugu azokan edo bertako ekoizleen alde apustu egiten duten dendetan, gure baserriak babesten ditugula.

Beraz, gure **proposamenak** ildo horretatik datoz:

- Baserritarren azokaren publizitatea edo promozioa ondo egiten laguntzea, azoka bermatzeko.
- Udal azoka erakargarria eta eskuragarria egitea, biziberritzea eta ordutegiak birpentsatzea. Eraikina bera berritzea, margotzea (adibidez, horma irudi bat egitea), baserritarrei saltoki hobekak eskaintzea eta abar.
- Azokan egoten diren baserritarrek postuetan karteltxo bat edo jartzea, informazioa emateko euren baserriari eta ekoizten dituzten produktuei buruz.
- Antolatzen diren jardunaldietan (hitzaldiak, kantaldiak, ...) zerbait oparitzekotan otar bat oparitzea baserriko produktuz osatua.

Santa Teresa: Mara Iglesias

- Tailerrak antolatzea baserriko produktuak dagokion garaian kontsumitzeko.
- Udalaren menpe dauden jangeletan, zaharren egoitzakoa adibidez, inguruan ekoiztu diren produktuak erabiltzea, ahal den neurrian.

Baserri eremuak bizirik mantentzeko, azpiegitura egokiak izan behar dituzte: baserrira iristeko errepideak, baserriaren eta inguruko lursailen ur hornidura, ur zikinak kanporatzeko eta arazteko sistemak, Interneta, autobus edo taxi zerbitzuak, ...

Beste alde batetik, gaur egun, baserritar gazte gutxi dago gure herrian, eta esan dezakegu ez dagoela belaunaldi erreleborik, edo kasu gutxitan ematen dela. Hori dela eta, nekazaritza, abeltzaintza eta bertako kalitateko produktuen ekoizpena arriskuan egon daiteke, izan ere baserritarren lana beharrezkoa da gizarte osoarentzat.

Gaztelupe: Haimar Blanco

Aipatutako guztiari aurre egiten jarraitzeko, hona hemen gure **proposamenak**:

- Baserritik bizi nahi duten gazteei laguntza eskaintzea: nekazaritza zentroetatik formazioa ematea eta laguntza ekonomikoak bideratzea.
- Lursail abandonatuak eta erabiltzen ez direnak baserritar gazteei eskaintzea, eta, horrela, nekazari gazteek lurrari erabilera eman diezaioke.
- Baserri eremuetan bermatzea Interneta azkar eta arazorik gabe dabilela.

Arimazubi: Garazi Nieto

- Ekimenak laguntzea, helburu dutenak herriko baserriak eta baserri mundua ezagutzera ematea: liburuak, erakusketak, hitzaldiak eta abar.
- Udalako elurzulua eta karobiak mantentzea eta kontserbatzea, garai bateko bizimoduaren adierazgarri diren heinean.

Gure aldetik **prest gaude** hainbat gauza **egiteko**:

- Herriko baserriarren produktuak erosiko ditugu.
- Gure etxeetan komentatuko dugu zer aukera dagoen hurbil ekoizten diren produktuak erosteko.
- Azokara gehiagotan joango gara.

Gazteluondo: Ane Lopez

- Baserri inguruetara hurbiltzen garenean, errespetuz arituko gara bertako ingurunearekin eta bizilagunekin: ez dugu botako zaborrik, txakurrak kontrolpean eroango ditugu, abereak ez ditugu uxatuko, eta abar.
- Gure ikastetxeetako ortuetan lan egiten jarraituko dugu, eta halakorik ez badugu, eskatuko dugu martxan jartzeko.
- Hileko hirugarren zapatuko azokara joango gara, inguruko baserriarrei laguntzeko nolabait.

Institutua: Ainhoa Ansorregi

Baserri kulturaren gaia lantzean, gure tradizioak ere aztertu ditugu. Jakin dugu asko eta asko baserriaren mundutik datozela: janari bereizgarriak, herri kirolak, euskal dantzak, herriko jaiak eta abar. Bertsolaritza ere aspalditik lantzen dugu, eta zelan ez, gure ekarpenak ere egiten ditugu, eta urtean behin emanaldi batean parte hartzen dugu. Ezinbestekoa ikusten dugu tradizio horiek mantentzea, gure kulturaren zati garrantzitsu bat delako.

Horregatik guztiagatik, gure **proposamena** da behar besteko garrantzia ematea baserri kulturarekin loturiko tradizioei, eta horiek herritarrei ezagutaraztea.

Guk, gure aldetik, eskoletan zein aisialdian, kontuan hartuko ditugu ohitura zahar horiek.

Bukatzeko, guk argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegina bat nahi dugula, eta horretarako, **prest gaude** laguntzeko; Arrasate herri atsegina da jadanik, baina konturatu gara denon artean gauza asko daudela hobetzeko, eta hori posible dela.

Hurrengo urteetan ere jarraituko dugu gure lanarekin, eta jarraituko dugu ekarpen txikiak ekartzen foro honetara. Espero dugu gure ekarpenak lagungarriak izatea udal honen lanetarako.

ESKERRIK ASKO!